

# Pilota partida, bertsolariak, trikitilariak eta sagardotegia San Ixidro egunaren ospakizunetan

**O**raindik hamar egun falta dira San Ixidro egunerako, baserriarren egun handirako. Baina zenbaitzuk lanak aurreratu egin nahi izan dituzte. Egitaraua dagoeneko osatuta dago. Ohi bezala, meza nagusiarekin hasiko da San Ixidro eguna. Meza eta gero, Andazpe elkar-teak hamaiketako eskainiko du eta segidan hasiko dira pilota partidak, bertso desafioak eta trikiti doinuak.

MAIATZAK 15, ASTEARTEA  
10:00 Meza nagusia.  
11:00 Hamaiketako Andazpe Elkartean.

Ondoren, Pilota partida, Egoitz Zelaia eta Arkaitz Oiarzabal bertsolariak eta trikitilariak frontoian.

14:00 Bazkaria Saizar sagardotegian (prezioa, 27 euro). Ez da izena alde zurretik eman behar. Egunean bertan sagardotegira azaldu eta kitto.



## Sagardoari gorazarre, Eguzkitzaldean jarri den eskultura

**E**guzkitzaldea auzoa berritzeko egitasmoa azaldu zenean, sagardoari eskainitako eskultura jarriko zela iragarri zuten. Jada ikusgai dago. Ikusgai eta erabilgarri. Izan ere, eskultura izateaz aparte, iturria ere bada.

Eskulturaren goikaldean, sagardo botila bat ikusiko duzue. Iturria mar txan jartzean, botilatik baso itxura duen ontzi batera erortzen da ura. Sagar bat eta beso itxurako bi harrirekin osatzen da eskultura. Sagardo Eguna ospatzeko bi asteburu falta direnean ipini du udalak eskultura.



HARRIZ EGINIKO ESKULTURA HAU ITURRIA ERE BADA.

**txirriStra**  
KONTBEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartakoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**Otar-Goxo**  
Zubiarrenca, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

JOSUE  
ARANZAZISTROKI  
**IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalean  
Tel: 606 37 21 05